

BIZKAIKO ENPRESEN % 65ek BERRIKUNTZAREN ALDEKO ERABAKIA ARRAKASTA GISA BALORATU DU

- **Gaur egungo testuinguruan, berrikuntza oso presente dago enpresetan. Horren haritik, galdetutako enpresen erdiak erantzun du azken lau urteetan berrikuntza ekintzaren bat egin duela.**
- **Bezeroen premiei erantzuteko denbora tartea murriztea eta kalitatea hobetzea dira enpresek gehien balioesten dituzten alderdiak**

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Merkataritza Ganberak Barrixe Berrikuntza Behatokiaren bitartez egindako Norabidea 2013 azterlanak agerian jarri duenez, enpresen % 65ek berritzeko erabakia arrakastatzat jotzen du. Berrikuntzari zor zaizkion lorpenen artean, bezeroen premiei erantzuteko denbora tartea murriztea eta kalitatea hobetzea dira enpresek gehien balioesten dituztenak, fakturazioa, marjinak edo etekin garbia areagotzea baino gehiago, bereziki enpresa gehien kasuan (% 76) ezinezkoa denean ezarritako berrikuntzen etekinak kudeaketa kontabilitatean identifikatzea.

Enpresek berretsi dutenez, egoera ekonomikoak eragina du jarduera berritzailean, eta enpresen bi herenek berrikuntza helburuak murriztu dituzte; halere, etorkizuneko aurreikuspenetan berrikuntzan inbertitzeko esfortzuaren saldoak joera positiboa agertzen du, eta marketin eta merkaturatze ekimenek protagonismoa eskuratuko dute.

Norabidea 2013 txostenak Bizkaiko Lurralde Historikoko enpresek negozio planen barruan berrikuntzari ematen dioten garrantzia aztertzen du, eta, jaso duenez, galdetutako Bizkaiko enpresen % 53k azken lau urteetan berrikuntza jardueraren bat egin du. Gainera, enpresek jarraitutasuna eskatzen duten berrikuntza proiektuak lantzen dituzte; izan ere, azken lau urteetan etengabeko berrikuntza jarduerak egin dituztela dioten enpresen kopuruak gorakada arina izan du.

Bizkaiko enpresa berritzaileen profilari dagokionez, sortu berriak izan ohi dira, ez familiakoak, jarduera esportatzailea izan ohi dute eta enpresa horien produktuak sarrera edo hazkunde fasean egon ohi dira; horrez gain, arduradun profesionalek goi mailako unibertsitate ikasketak izan ohi dituzte. Berrikuntzak, oro har, produktu berrietan egin ohi dira, eta prozesuei dagokienez, funtsean, izaera teknologikoa izaten dute; espektatiben betetze maila altua izaten da.

Norabidea 2013 txostenak adierazi duen moduan, Berrikuntza Behatokiak elkarrizketatutako enpresen artean hirutik batek lankidetzaren erregularra du, berrikuntzak garatzeko orduan, beste enpresa batzuekin (sektore berekoak zein beste sektore

batzuetakoak), bezeroekin edo zentro teknologikoekin. Lankidetzaz hori *erabilgarritzat* jo du enpresen % 44,4k; datu horrek, gainera, urtez urte maila horri eutsi dio.

Berrikuntzak aplikatzerakoan, laguntza publikoak faktore garrantzitsu bat izaten jarraitzen du. Hala, hamar enpresa berritzailetik lauk finantzaketa iturri publikoak jaso ditu prozesu berriak garatzeko, enpresan bertan ikertzeko eta langileak prestatzeko.

Ekonomia Sustatzeko foru diputatu Imanol Pradalesek Bizkaiko Foru Aldundiak berrikuntzari ematen dion garrantzia nabarmendu du. Ildo beretik, enpresetan berrikuntza sustatzeko eta kudeaketa eta parte hartzea hobetzeko laguntzak aurten areagotu egin direla gogorarazi du, berrikuntza aplikatuz, 8,5 milioi euroko zenbatekoan. “Iaz, zazpi milioi euro pasatxo bideratu genituen laguntza horietara, eta 318 enpresen artean banatu ziren; enpresa horietan 9.403 pertsonak egiten zuten lan” azaldu du.

Halaber, Imanol Pradalesek nabarmendu du Foru Aldundiaren ETEak eta Autonomoak Berrabiarazteko Planean aurrez ikusi dela 2015. urtera arte berrikuntzan egin beharreko inbertsioak guztira 60 milioi eurora iritsiko direla, eta legegintzaldi honetan proiektu berritzaileak bultzatuko direla 1.200 ETEetan; 24.000 lanpostu finkatzeko lagungarriak izango dira.

Bestalde, Bilboko Merkataritza Ganberako presidente José Ángel Corresek uste du “berrikuntza arloan gaitasun iraunkorrek sorrarazten dituzten enpresek beharrezko ezagutza izango dutela haien etsaien mehatxu lehiakorrei azkar eta modu eraginkorrean erantzuteko. Horrek guztiak esan nahi du lanpostu gehiago eta hobeak sortuko direla, ordainsariak igo eta lan baldintzak hobetu egingo direla”.

Corresek adierazi duenez, “gaur egun berritzea funtsezkoa da, ez soilik merkatuan egoteari eusteko, baizik eta modu iraunkorrean hazteko, enpresa lehiakideen artean nabarmendu ahal izateko eta merkatu hobiak lokalizatzeko. Enpresek sinetsi egin behar dute egoerari buelta emateko eta hazkundearen bideari berriz ekiteko erantzuna berrikuntza izan daitekeela.”

Norabidea txosten osoa (Berrikuntzak Bizkaiko enpresetan duen garrantziari buruzko inkesta 2013) hemen kontsulta daiteke: www.barrixe.com.